


Bakartadea



James J. Lynch sikologoak munduarentzat dei hat dauka. 271 orrialde luze ta jakintsu dakarskuz zenbakiz beterik. Eta gizaldi-etan zear olerkariak esan ebana bera diño: Bakartadeak gizona it egin leike.

Lynch'en liburu ori asko saldu da, «best seller» edo geien saldua ez ba'da be.

Bere eritxiak indartzeko, Lynch'ek Laterri-Alkarteko Nevada ta Utah alderdietan, 1960'an jazoriko eriotzak dakarskuz.

Alkar-auzo diran lurralde bi oneik egurasti-giro antzekoa dauke, errenta eta, ezikeTa-maillak be antzekoak, biztanletza hardifia.

Alan be Nevada'n ogei ta bost eta irurogei ta bost urteko andra-gizon zurien artean eriotz geiago izaten dira. Utah eriotzaz gitxienetarikoa da.

Utah'en jan-urriak gorde eta ekiñaldiak egiten dabez, Nevada'n oster, joku-olgeta eta ezkontza-austeak ikusten dira. Ezkontza-austearen Meca esaten jako.

Utah'eko biztanleak geienez mormonak dira, tabakorrik ez dabe erreten eta akoolik be ez dabe edaten. Ezkontzak iraunkorrek eta sendi-lotura pozkorrek daukez.

Laterri guztiak Nevada'ren zenbaki-maillara elduko dirala, iragarten dau Lynch'ek. Orretarako jazoera batzuk dakar.

1975'garren urtean milloa bat ezkontza-auzte egin ziran. Urtearen barruan sasi jaiotzen eunekoa asko goratu da. Langilleak lan eta atxe asko aldatzen dabez.

Ainbeste oitura txarren artean, gure Euskaldun artzaintaldeak Ipar-Amerika'n eredu izan daitezke: Nevada'n,

°uren bizimociu zeregintsuaz, euren bakartadea ondo daroe, Drretan Euzkadi'ko etxeetan izan zituen oitura zarrari jarraituez. Ardiak zaintzea eta abereen arduraz ango mendietan .rabazi onak ateraten dabez, neurri aundietako zelaietan biaz.

Lynch'ek bere lanean, hakartadea neketsua dala diño. Eta ezkoncluen egoera be ez da eredu betea...

Ezkonduen ai Lean maitetasun aberatsa izaten da, eta ez ;itxitan, baiña asko ezkontzea ausita bizi dira.

Alargunak erakusten ditue maitasuna ta alkartasuna ;aizearen ondorenak.

Naigabetuen artean ori argiro ikusten da. Giza-taideak, benetan, biotz urratuz ilten dira.

Nine ardurea, giza-talde askoren bakartadea ezagutzea cia.

Gauza guztiak gaurko gizartean, askatasun eta norbere jabetasunaren atxakiz saltzen dira.

Eta zer dator ortik?

Askatasuna, bitara artu leiken berbea da. Azalpena bear dau.

Bakartadea gaiso-aldi baten agerkari ta agertzea da.

Euneko 50 uriko ume daukazan laterri bateri, oñarriak uts egiten dautsoe.

Ikastolak Elizatik aldendu eta sinismenik ez irakasteko liño. Eta benetan materialismuaren fedea irakasten dabe.

Fedea jakintza baiño aurrerago, arago doa ta Jesu-kristo'k, fedea bakarrik salbauko gaituala difiosku.

LETONA'k

